

ZAZPI HERRIALDE, ZAZPI EGILE, MEZU BAKARRA

Mezu kolektiboa eraman du barnean 24. edizioko lekukoak. Elkarlanean idatzi dute zazpi gaztek, Euskal Herriko zazpi herrialdetakoak eurak. AEKk ez ditu ausaz aukeratu: guztiak *euskara dira* gaur egun, baina hainbat bide ibili dituzte horretara heltzeko, ez baitute hizkuntza modu berean jaso. Hori bai, euskararen etorkizuna jokoan dagoen honetan, ezinbestekoa denean guztiok dagokigun erantzukizuna geure egitea, Oierrek, Oihanak, Elenek, Beñatek, Aitzolek, Xalbatek eta Leirek argi dute euren engaiamendua; horrexegatik dira euskararen Pizkunde berri baten lehen txinpartaren isla.

Mezu-egileak, lekukoa hartzean izan duten hurrenkeran

Oier Iñurrieta Garmendia

25 urteko gasteiztarra, irakaslea da eta euskaraz bizi da Gasteizen: "*Gero eta espazio eta eskaintza euskaldun gehiago ditugu gurean; horietako bat da Korrika baten harira sortu zen Zunba Herrikoa, zeinetan 2018tik hartzen dudan parte*"; euskara oinarri, aisialdi-eredu alternatiboa eskaintzen duen proiektua da.

Iñurrietak Korrika beti izan du "*oso kuttun*", gurasoei eta izeba AEKideari esker. Hamaika oroitzapen eder ditu: "*Zunba saioak, Gasteiz korrika inguratzea, Korrika Txikia, Gose taldearen Euskalakari abestia entzun nuen lehen aldia, kanpoan harrapatu ninduen Korrikaren zuzenekoari ordenagailuz jarraitzea...*".

23. Korrikan, Gasteiz osoa egin zuen "*furgoneta magiko horren barruan*", esatari. Goia jo zuela uste izan arren, orain bete du lekukoa eramateko ametsa: "*Non eta Bilbon; noiz eta 24. Korrikan; zein eta azken kilometroa; nola eta mezulari gisa; norekin eta beste sei lagunekin*".

Oihana Arana Cardenal

Korrikak txoko berezi bat dauka 25 urteko eskoriatzarraren memorian: "*Haurtzarora narama, jaioterrira, amaren eskura*". Aranaren etxea beti izan da euskalduna eta euskaltzalea, baina argi du bederatzi urterekin bertso-eskolan hasi izanak oso eragin sakona sortu ziola nerabezaroan, "*neure burua euskaraz dela ondoriozta nezan*".

Donostiara joan zen Gizarte Antropologiako ikasketak egitera, "*eta bertan topatu nituen transfeminismoa eta ikuspegi horretatik euskaraz bizitzeko aukera*". "*Hiriaz beste egitea*" erabaki zuen gero, baina oraindik ez da jaioterrira itzuli. Umetatik izan da "*berbazalea*", eta zaletasuna ogibide bilakatu du: "*Berbak oinarri dituzten hainbat arte-adierazpide lantzen ditut orain nire egunerokotasunean: literatura eta bertsolaritza, batez ere*".

Elene Mengyu Larrinaga Bilbao

Txinan jaio zen 2003an, eta 11 hilabeterekin heldu zen Barakaldora, gurasoek adoptatuta. Euskara txikitatik izan du presente: *"Amak Pirritx eta Porrotxen kantak jartzen zituen, eta ETB3 pizten zuen, bi alabok Doraemon ikusteko"*.

Amarekin joan zen lehendabizikoz Korrikara, 7 urterekin: 17. Korrika zen, eta buruz ikasi zuen *Euskalakari* kantaren letra.

Nerabezaroan, D modeloan ikasi arren, *"institutuko irakasleekin hitz egiteko bakarrik"* erabiltzen zuen euskara, gainditu beharreko irakasgaia besterik ez zen harentzat. Amak AEKn apuntatzera animatu zuen, eta, unibertsitatera sartzean, ikasketak euskaraz egitea aukeratu zuen: *"Lehen aldia izan zen hainbeste euskalki entzun nituena, eta ama izugarri poztu zen lagun berriekin euskaraz hitz egiten hasi nintzenean"*.

Gaur egun, ahizpa eta biak euskaraz dakien lehen belaunaldia dira familian, amaren ahaleginari esker: *"Ama-hizkuntza gaztelera izan arren, ni euskalduna naiz amari esker"*.

Beñat Jusue Rosano

Tuteran jaioa duela 28 urte, Argia ikastolan euskaldundu zen: *"16 urterekin konturatu nintzen zein txikia den Tuteran"*. Orduan hasi zen, *auzoko* beste gazte batzuekin batera, Euskararen Eguna, gazte-egunak eta bestelakoak antolatzen: *"Pixkanaka, belaunaldi berriak gerturatzen hasi ziren eta, Tuterako jaietan gazteontzako espazio propiorik ez zegoela konturatuta, txosnak jarri genituen"*.

Batxilergoa gaztelaniaz egin ostean, unibertsitate-garaiko urteetan militantziak ardazu zuen haren bizitza, *"gazte- eta ikasle-militantzia izan dira nire eskola garrantzitsuenak"*. Hala, 22 urterekin, Union Tuteran taldearen sorreran parte hartu zuen (beste gazte batzuekin elkarlanean eta Agerraldiaren laguntzaz), euskara, parekidetasuna eta kultur integrazioa sustatzeko: *"Ondoko hiritik, gazte asko hasi ziren gure auzora hurbiltzen, eta erraz integratu ginen guztiok: hizkuntza bera hitz egiten dugu gehienetan..."*.

28 urterekin, Tuterara itzuli da bizitzera: *"Oraindik gauza asko ditugu egiteko, baina sinisten dut egunen batean euskaldunok Tudelako auzo periferikoa izateari utziko diogula; badakit ia 40.000 biztanleko hiria bihurtuko garela"*.

Aitzol Gil de San Vicente

23 urteko ikasle hendaiarra. Donostian jaioa, 7 urterekin joan zen mugaz bestalde bizitzera. Euskara du ama-hizkuntza, baina euskararekiko lotura Bernat Etxepare lizeoan sendotu zuen, *"euskaraz ikasteko eskubidearen aldeko borrokan. Ipar eta Hego Euskal Herria lotu gintuzten ikastolek, ikasle-mugimenduak eta euskarak"*. Garai hartan hasi zen militatzen, *"eta orduan egin nintzen abertzale"*.

Medikuntza ikasten ari da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU): *"Muga administratiboak oztopoak dakartzan arren, hori zen euskaraz ikasten jarraitzeko aukera bakarra"*. Euskal Herrian bizi nahiko luke etorkizunean, bere ekarpena bertatik bertara egin eta jendea euskaraz artatu.

Xalbat Alzugarai Etxeberri

24 urteko urepeldarra, *Berría* egunkariko kazetaria da Baionako ordezkartzan. Euskara etxean ukan zuen. Hezkuntza-sistema elebidunean ibili zen 18 urte izan arte. Bertzeak bertze horren eraginez, *"nerabezaroan frantsesak gaina hartu zidan, etxetzat nuen hizkuntza kasik suntsitzeraino"*.

Hamalau urte zituela, Korrika Urepeletik abiatu zen, eta horrek lagundu zion nolazpait etxeko zimenduak berriz eraikitzen. Ondotik jin ziren kolegiotik lizeorako saltoa eta euskarari buruzko kontzientziazio-prozesuaren hastapena: *"Hango irakasle batzuei eta, batez ere, bertan ezagutu lagunei zor diet berreraikitzen hasi zen etxearen zimenduak segurtatzea"*.

Zimenduetarik paretak eraikitzerainoko bidean, Gasteizera joan zen, Euskal Herri osotik ikastera joandako jendea etxetzat hartzera. *"Etxearen teilatua, berriz, Basaizea elkarteko lagunei zor diet, fakultate-denboran hasi bainintzen hantxe engaiatzen"*. Geroztik gurutzatu dituen lekuek eta jendeek etxea bukatu eta finki apaindu diote, *"ene etxea berriz ere euskara(z) izan dadin"*.

Leire Casamajou Elkegarai

23 urteko sohütarra, *Berría* egunkariko Baionako erredakzioan dabil lanean. Alta, frantsesa du ama-hizkuntza, *"ez amak ezta aitak ere ez baitzekiten euskaraz, ni eta ene ahizpa-anaiak sortu ginelarik"*. Haatik, euskaraz izan ez bada ere, *"euskaratik hazi gaituzte hatsarretik, eta bide horretan jarraikitzen dute oraino ere. Hola egin gaituzte euskaltzale, abertzale; gure hizkuntzaren eta herriaren aldeko militante"*.

Haiei zor die, hortaz, euskara izateko hautua ukan izana. Hautu horren egiteko adinera heldu zirelarik, hain zuzen, *"gurasoen ildo beretik aritzea"* deliberatu zuten ahizpa-anaiek: *"Hizkuntza-ohiturak aldatu, eta euskaran murgildu ginen osorik, eskain ziezazkigukeen alde guziei beso-zabalik. Orain arteko bidean, beste batzuek ere euskara egin gaituzte are gehiago: pertsonak eta lekuak, gaiak eta arloak; dudarik gabe, horietarik bat da Korrika"*.

Bidean aitzina, euskara izaten jarraitzeko asmoa du: *"Ekintzatik izan beharko du; eta oinez baino, beti korrika"*.